

SAIL OFIZIALA. «Ez dut inor epaitu nahi, jendeari ez diot esango nola bizi behar duen, baina hor da errealitatea»

Kaige: «Txinatarrok nortasuna galdu dugu; ez dakigu zer izan nahi dugun»

‘Han ni zai yiki’ filmean, bere herriko gizartearekiko begirada kritikoa eskaini du zuzendariak

Jon Eskisabel | DONOSTIA

Txinako gizarteak azken hogeita bost urtean izan duen gainbehera sozial eta kulturalarekiko kezka eta bere semea musika ikasketak egin zitzaizkan diru eske aritzen zen aita baten kasua ezagutzeak bultzatu du Chen Kaige zuzendaria *Han ni zai yiki* filma egitera. Kaigeren ustez, txinatarrok nortasun arazo sakonean murgilduta daude, dirua eta ospearen distirak itsututa. «Denbora asko daramat Txinako gizarteaz aztertzen, eta azken hogeita bost urteotan erabat aldatu da, erreforma ekonomikoaren ondorioz. Giza balioak eta balio kulturalak galdu dira, giza harremanak asko aldatu dira, jendea etxeorratzetan bizi da, gero eta bakartuago bizi da, bizilagunak jada ez dira elkartzen afaltzeko. Ospea eta dirua bilatzen du jendeak, besterik ez. Ez dut inor epaitzeko

CHEN KAIGE

‘Han ni zai yiki’ filmeko zuzendaria

«Ospea eta dirua baino ez du bilatzen jendeak. Giza balioak eta balio kulturalak erabat galdu dira Txinan»

asmorik, ez diot jendeari esango nola bizi behar duen, baina errealitatea hor dago», esan zuen Kaigek.

Horrek denak tristura handia sortzen diola nabarmendu zuen zuzendari txinatarrak: «Jendeak sakelako telefonoa izateari ematen dio garrantzia. Ez dakit dirua den errudun bakarra, baina egia da dena aldatu dela Txinan. Txinatarrok ez dakigu zer egin beharko genukeen edo zer izan beharko genukeen. Nortasuna galdu dugu».

Haur eta helduen arteko borroka

AEBetan lan egin ondoren, Txinara itzuli da Kaige *Han ni zai yiki* egiteko. Herri txiki bateko aita bat eta bere seme biolinista Pekinera doaz, mutilak lehen mailako biolin irakasleekin ikasketak aukera izan dezan. Semea musikari ospetsua eta diruduna izatea da aitaren ametsa, eta hori lortzeko, edozein gauza egiteko prest dago, baina mutilaren asmoak ez doaz bide beretik. Ezagutu zuen kasu erreala bate-

an oinarritu zen Kaige filma egiteko. «Hunkitu ninduen pertsona hark, musika bizitza iturria baita niretzat. Nerabezaroan bizitzen jarraitzen lagundu zidan, arazo ugari bainituen; ez nekien

garbi non bizi behar nuen», esan zuen.

Txinan ohikoa da gurasoek beren bizitza sakrifikatzea seme-alabak unibertsitatara joateko. «Ez nago ziur merezi due-

netz», adierazi zuen zuzendaria. Kaigeren iritziz, filma «haurren eta helduen arteko borroka» bat da: «Baina ez dakit nork irabazten duen. Ezagutu nuen mutilak azkenean bere bidea

hautatu zuen, eta eskerrak eman zizkidan laguntzeagatik. Horrek biziki hunkitu ninduen».

Sail ofizialeko filmean ez ezik, Zabaltegin eskaini den *Ten minutes older* filmean ere parte hartu du Kaigek. Hor ere Pekin hiriburuak izan dituen aldaketekiko ikuspegi kritikoa azaldu du. «600 urteko istorioa birrintzen ari da; arbasoen eraikinak botatzen ari dira, nortasunik gabeko etxebizitzak eta hotelak egiteko. Filma itxuraz dibertigarria izan arren, oso triste nago gertatutakoarengatik».



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Chen Kaige zuzendaria eta bere emazte eta filmeko aktore Chen Hong.

Hiru zuzendarik zinemaren hizkuntza ikertu dute ‘Aro Tolbukhin...’ filmean

J. Eskisabel | DONOSTIA

Fikzioa eta dokumentala uztartuz, zinemaren hizkuntza ikertzen duen film bat aurkeztu dute Agusti Villaronaga, Lydia Zimmerman eta Isaac P. Racine zuzendariak sail ofizialeko lehiaketan: *Aro Tolbukhin en la mente del asesino*. Egiazko kasu bat hartu dute oinarritzat: 1981ean Guatemalako misio bateko erizaindegia erre eta zazpi pertsona hil zituen Aro Tolbukhin kasua.

Lanak formatu ezberdinetan filmaturiko hiru genero lotu ditu: fikzioa, dokumental faltsua eta Tolbukhini egindako elkarrizketa bat. Villaron-

gak azaldu zuenez, arkeologoen lanaren antzera eraikita dago filma: «hainbat geruza dau eta geruza bakoitza kendu ahala datu gehiago jakiten dira Tolbukhin bizitzaren, Guatemalako gerraren edota komunisten garaiko erbestearen inguruan. Baina zinemaren historiaren ere mintzatzen da filma; gainbegiratu bat egiten du zinemak dituen aukera ugarietan. Gaur egun zinema berrasmutzen edo autoelikatzen ari da. Dokumentala, fikzioa eta artxiboa nahasteko joera gora egiten ari da».

Erizaindegiko zazpi pertsona gain, beste 17 emakume haurdun hil izana aitortu zuen Aro Tolbukhin hungariarrak,



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Aro Tolbukhin... filmeko zuzendariak eta aktoreak.

baina filmean ez da argi gertatzen egin zuen ala ez. «Pertsonaiaren anbiguitatea nahita bilatu dugu», esan zuen Zimmermann; «Haren fantasia eta subjektibitatea transmititu nahi genuen». «Guk pertsonaia ez dugu epaitzen edo defenditzen; ulertzen saiatzen

gara, bere ikuspegitik eta ezagutu zutenen ikuspegitik», gaineratu zuen Racinek.

Tolbukhinaren rola jokatzeko duen Daniel Gimenez Cacho aktore mexikarrak esan zuenez, filmaren apustuetako bat fikzio zatiak irudi errealetatik garbi bereiztea izan zen.